

TOKIKOM

KARKARA

ORIKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2010eko apirilaren 23a / 278. zenbakia / 21. urtea

- **HERRIKO KONTUAK Udaleku irekiak** 05
- **KIROLA Eguzki-OB** 08
- **AIAKO BERRI Landare Berezien Azoka** 11
- **IRITZIA Eneko Balerdi** 18
- **MOILA BAZTERRETIK Jokin Salsamendi** 19
- **HERRITARRA Santi Barranco** 25



Txirrindulariek eta
zaleek kalea hartu

Aprilaren 9an eta
10ean jendetza erakarri
zuten Aiara eta Oriora
Euskal Herriko
Txirrindularien 50.
Itzuliak eta eguraldi onak.

BACHEN LOREAK
OREKA ENERGETIKOA

- tratamendu naturalak -
- oreka energetikoa -
- bachen loreak -



Kiara Fernandez Huelgun
Tel: 655 726 291
email: orokar@bachenloreak.com

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kcl. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orío · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

ninarri
PODOLOGIA ZENTROA



Zaragueta
Eskola Orío

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@ezkuntza.net

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu. ✓

Presupuestoak eskatu
konpromisonik gabe ✗

Lan txukuna
eta merkea ✗

Tf: 943 83 59 00

agirresarobe ARKITEKTURA
OBRA ETA PROIEKTUAK

ETXEBIZITZA ETA LUGALDE ERREFORMA PROIEKTUAK
FATXADA ETA TOLATUEN ERABERRITZE PROIEKTUAK, HODGAILUAK
OBRA ZUZENDARITZAK, INFORMEAK, GRENIO KOORDINAKUNTZA

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK, HIRIGINTZA, LURRER KUOKAKETA

BOJIA ARREGLATZAREN LORTZEAK, ARKITEKTURA
HURRUA D. S. MULESAN, ZARAUZ
MUR: 025 731 722

tel/fax: 943 89 00 69
Bihala raka 4. 20.300 ZARAUZ



URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA

SOLOZABAL
autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. era
telef: 943 83 08 12

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TRONFOLAK - BAIKURAT



Santiago ezua - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: mmanterola@euskalnet.net

TMM **AENOR** **ISO 9000**

Ezforako balbula
AENOR kalitate ziurtaginduna

LANATORIO ZARAUZ
EURUFUNBARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Alderako zerbitzuak
- * Belatorio gelak
- * Korioak, eskalak, trazitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz
Tel: 943 89 49 37 - Fax: 943 89 40 41
e-mail: hanesgill@anesgill.net

PERTSIANAK
A K O M A Z

Alumbrak, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 25 01 Mugakorra 600 70 52 27

FISOTERAPIA Gorka Ir. Arriegi eta Natalia Wierszen
NUTRIZIONISTA Gendete Algorri

sinergia *investigacion fisioterapia*

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

proteglia MIRANDA
Ira M. Larrauri

tactra, abo, lotxo, eskaketa...
bragar, kurtu, apala, lana...
egunero (inkoage)

Urdaneta bidea, 1 - 0650 42 32 70 - ZARAUZ

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO BAGASTI
TF: 605 732 913
Faxa: 943 020 213
ventas@sagasti@euskalnet.net
Birkalea kalea, 20-1 B
20800 Zarauz

Joseba Ostolaza
TAXIA

24 ORDUKO ZERBITZUA
TF: 646 510 288



Baxualde, 9
ORIO

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaMikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Eli Lasa eta
Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Carla Acuña, Unai Azkarate, Iker
Gurrutxaga eta Xabier Sukia**Laguntzaileak**

Jokin Salsamendi

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakEkiñe Miralles eta
Goiuri Unanue (Orío)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 3.300 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Patxi, Zaparro eta Iñarra

XABIER SUKIA (ERRIKOTXIA BERTSOZALEEN ELKARTEA)

1Zermoduz, aspaldiko,
ondo al haiz, Patxi?
Valdemorora gure
muxu ta goraintzi.
Zenbat herritar preso?
zenbat harribitxi!
nahiz eta hire gelako
pertsianak jetsi
hire ametsa inork
ezingoz dik itxi.**2**Zermoduz, aspaldiko,
ondo al haiz, Zaparro?
Espainiako sarean
hagoen txitxarro;
bizitzari heltzeko,
izan olagarro,
ni neok ginenetik
biok kakanarro
hirekin harro eta
hiregatik harro.**3**Zermoduz, aspaldiko,
ondo al haiz, Iñarra?
batzuk berriz hemen nahi
haugun herritarra,
moztu arren berriro
sortzen den adarra,
moztu arren berriro
datorren belarra,
gorde, arren, gauero
pizten den izarra.**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie**LAGUNTZAILEAK**

Eusko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Masterra egin nahi duenari

Orion, seguruenik asko izango dira ikasketak bukatu eta gero, horiek osatzeko, master bat egingo edo egin nahiko luketenak. Norberak ordaindu beharko du eta, gainera, poltsikoari astindu ederra eman: matrikulak, garraioak, egonaldiak, janariak...

Baina, denon zorionerako, hori bukatu da! Orioko Udala prest ageri baitzaigu master bat egin nahi duenari dirulaguntzak emateko. Hori da Orioko Udaleko kirol batzordeak hartu zuen erabakia martxoaren 4an egindako bileran. Onuraduna? Mikel Izquierdo, Kirol eta Gazte teknikaria.

Horrek, Arraun Teknikazio Zentroa dela-eta, hura kudeatzeko teknikari *espezializatuaren* beharra izango dugula pentsatuta, bere burua boluntario aurkeztu zuen. Gure iritziaren aurka, Udalaren gehiengoak onartu zion ikasketarako dirulaguntza.

Dena dela, alde aurretik, argitu behar dugu Udalak oraindik ez duela erabaki zer eta nolako kudeaketa izango duen zentro horrek; hau da, publikoa eta herriarena, konpartitua, Fundazioa edo beste formaren bat hartuko duen.

Ia maiatzera iritsi gara eta Teknikazio Zentroko lanak oraindik ez dira hasi; beraz, pentsa dezakegu epeak ez direla beteko (2011n bukatua behar zuen). Bitartean, denon artean master bat ordainduko diogu Mikel Izquierdori. Ikasketa horiek bi urte iraungo dute: 2010-2011 urteetan, eta Madrilen egin behar ditu.

Hona hemen, gutxi gorabehera kosteak: 2010: matrikulazioa 2.744 euro, 10 joan-etorri Madriler 83,35 euro bakoitza, gehi egonaldia, janaria eta masterra bateragarri egiteko beharko dituen lan orduak. 2011: matrikulazioa 2.300 euro, 10 joan-etorri, egonaldia, janaria eta lan orduak.

Hori da Orioko Udalak ordainduko diona teknikariari. Jakin behar da teknikari

horren soldata gordina 2009an: 2.922,49 euro hileko; eta, aurtengo igoyerarekin, hemendik aurrera 2.989,21 euro jasoko ditu.

Beste teknikariek egindako hainbat ikastarok eta egokitzapen ikasketengatik, 150 euroko laguntza jaso izan dute orain arte. Zer dela eta udal langileen arteko desberdintasun hori?

Gainera, oraindik Musika Eskolako langileei ez zaizkie dagozkien hitzarmeneko bi puntu aplikatu nahi, dirurik ez dagoelako.

Zer dela eta ordaindu behar dio Oriok master bat kirol teknikariari? Eta, hori horrela izanik, ez al ditugu eskubide berdinak herritar guztiok? Zergatik lehentasuneko tratu hori kirol teknikariari?

ORIOKO EZKER ABERTZALEKO ZINEGOTZIAK

Luxiano Manterola hil da

Luxiano Manterola hil da; 62 urtez bizi izan da, baina jaio zenetik gertu izan du beti bizia eta heriotzaren arteko borroka. Artean hilabete ez zuela, bere amak sekulako sustoa hartu zuen Orioko tren estazioan zegoela, sanpedro festetan, haraino ihes egindako zezenarekin. Horren ondorioz, amari esnea txartu egin zitzaion eta haurrak hartzen zion esne guztia bota egiten zuen. Ama hari ederki kostatu zitzaion haur hura aurrera ateratzea. Baina Luxiano onik atera zen.

Gaztea zela, arraun kluba sortu berritan, behin, aulki mugikorrek bi ontzik talka egin zuten aurrez aurre, ontzi haietako baten branka zorrotza iztarretik sartu zitzaion beste ontziko aurrealdean zihoan Luxianori. Orduan ere onik atera zen. Geroztik mobileko ontziei muturrean gomazko pilota bat jartzen hasi ziren Orion. 1972ko apirilaren 8an, arraunlariak estropada batera zihoazela automoblean, Zaragozako La

Tranquerara, lau arraunlariak istripu larria izan zuten. Luxiano onik ez, baina bizi onik atera zen. Istripuaren ondorioz, ibili ezinik geratu zen, betiko gurgpilezko aulki bati lotua. Auto hartan zihotan batek oraindik gogoan du bidai hartan Luxiano txirula jotzen joana zela autoan, lagunenen pozerako.

Istripuak zaildu bai, baina ez zion trabatu bizitza. Bizitza betean segitu zuen geroztik ere: unibertsitatean ikasi, Kutxan lan egin, Orioko ezker abertzalearen sorrerako oinarri nagusi izan, Euskaldunon Egunkarian ekonomiari buruzko artikuluak idatzi... zailtasun guztien gainetik, errazkeria guztien azpitik.

HERRITARRA

Florentino gogoan

Bai, 30 urte pasa dira, baina familiak atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen du. Gogorra izan da KARKARAN berriro argazkiak ikustea; are gogorragoa, testua irakurtzea.

Egia da, atentatua justifikatu nahian, Komando Antikapitalistek nire anaia *txibatotzat* hartu zutela hilketa ondoren, eta familiak ohar bat argitaratu zuela hori kalumnia zela esanez; baina ez familiak bakarrik, baita Euskadiko Ezkerrako zinegotziek ere. Nahiz eta denek jakin akusazio hura faltsua zela, beldurrarengatik agian, oso herritar gutxiren babesa jaso genuen.

Florentino maite dugunok nahiago genuen artikulu hori ez bazen argitaratu eta atsedenean bakean utzi balitzaio.

Urte asko igaro dira baina, oraindik ere, albiste tamalgarri horren atzean familia baten sufrimendua dago.

KORO LOPETEGI

Txirindulari Itzulia

Lehenik eta behin, eskerrik asko Euskal Herriko Itzulia

gurera ekartzea posible egin duzuenoi, Oriotarrak elkar-teari, Orioko eta Aiako Udalei eta baita lanean boluntario aritu zaretenei ere. Zorionak gure herrian munduko txirindulari onenak izan ditugulako, lasterketa zoragarria antolatu duzuelako, horrenbeste jende mugitu eta, batez ere, duela bi urte egindako akatsak konpontzen saiatzeagatik: autopista azpiko zebra-bidea asfaltatuta, aurrekoan ez bezala, denak osorik pasa dira handik, erori gabe.

Baina badira aldatu beharrekoak ere. Ostiraleko lasterketan erorikoak izan ziren Aian. Hainbat txirindularik lasterketaren aurretik dabil-tzan auto eta motoei egotzi die erorikoen errua, bide bazterreko hartxintxarrak erre-pidean zabaltzeagatik dabil-tzan abiadurarekin. Tartean herritar bat baino gehiago ikusi nuen eta hurrengoan kontuz ibiltzea eskertuko nieke, bidea libre izanagatik, txirindulariek eskertuko dutelako!

Penagarria igandean Orioko hondartzarako bideak zuen itxura. Zaborrez gainezka ikusi genuen egun osoan. Ikargarrizko abidan desmuntatu zuten ingurua, bidea azkar ireki, kamioiak desagerrarazi... baina ez zen inor geratu garbitzen. Jende ugari etorri zen Oriora eguraldi onak bul-tzatuta, baina tristeza izan zen hondartza aldean aurkitu zutena.

Segi lanean ondo ari zare-

20. ORRIALDEAN GUTUN GEHIAGO

Akatsak zuzenduz

277. KARKARAN badira zuzendu beharreko gauza pare bat, gutxienez: argazki mundialean, alde batetik, fotoak mende laurdena duela jarri genuen, mende erdia jarri beharrean; bestalde, abarborra eta estriborra bata bestearekin nahastu ditugu. Barkatu eragozpenak.

MAIATZAREN 14AN EMAN BEHARKO DA IZENA ETA EZ DIRA EPEZ KANPO JASOTAKOAK ONARTUKO

Udaleku Irekietan jolasean aritzeko aukera aurten ere

Uda garairako udalekuak antolatzen hasi berri dira Txurumuski elkarteak. Izena emateko prozesua martxan jarri dute alde batetik; bestalde, begiraleak eskatu dituzte.

Eguzkia bazterrak epeltzen hasi bezain pronto hasi dira Txurumuski taldekoak uda garairako prestaketekin. Urtero bezala, Udaleku Irekiak antolatuko dituzte uztaileko eta abuzturako. Behar adina ume ez badituzte, abuztuan, bertan behera geratuko da eta gurasoei dirua itzuliko zaie. Astelehenetik ostiralera hartuko dituzte haurrak, 09:00etatik 12:30 edo 13:00etara.

Haurrak uztaile osoan Txurumuskirekin jolasean eta ikasten pasa nahi badu, 65 euro ordaindu beharko ditu; udalekuetan abuztuko lehen hamabostaldian izango bada, 35 euro.

Onartua izateko hiru urte beteak izan behar ditu umeak, alde batetik eta euskara jakitea ere ezinbesteko baldintza da, bestetik.

IZENA EMATEA

Txurumuskiko kideek adierazi dutenez, aldaketak izango dira aurten izena emateko moduari dagokionez: lehenik eta behin, maiatzaren 11 baino lehen, Euskadiko Kutzako 3035 0182 181820021770 zenbakian sartu beharko da dirua, haurraren izenean.

Ondoren, izen-emate orria behar bezala beteta –publikatzeko diren argazkietan ateratzeko eta, hala nahi duenak, etxera bakarrik joateko baimena sinatzea ez ahazteko gogorarazi dute antolatzaileek– haurraren osasun txartelaren kopia eta diru sarreraren kopia egin dela ziurtatzen duen ban-



09:00etan hartzen dituzte haurrak udalekuetan eta 12:30-13:00etan bueltatu etxeko.

KARKARA

kuko agiria eraman beharko dira kultur etxera, maiatzaren 14an, 19:00etan egingo den bilerara. Aurreneko aldiz, dena egun berean egitea erabaki

dute, antolaketa lanak errazte aldera. Urtero izaten omen da epez kanpo izena eman nahi duena eta ohitura horrekin bukatu nahi dute.

BEGIRALEAK

Udaleku Irekiak behar bezala antolatu eta aurrera eramateko, begiraleak behar ditu Txurumuski elkarteak eta herriko gazteei dei egin die lanean jarduteko.

Euskaraz hitz egiteko eta idazteko gaitasun nahikoa izatea eta 16 urte beteta izatea dira elkarteak begiraleei eskatzen dizkien baldintzak. Interesa duten guztiek curriculum-a eta aurkezpen gutuna bidali beharko dituzte Txurumuski.orio@hotmail.com helbide elektronikora. Maiatzaren 11 izango da horretarako ere azken eguna.

Behin onartu eta gero, Txurumuskik egingo dituen prestakuntza saioetan eta udalekuak prestatzeko bileretan parte hartu beharko dute hautatutako begiraleek.

Maiatzaren 11 baino lehen sartu beharko da dirua Euskadiko Kutzako zenbakian, haurraren izenean. Ondoren, izen-emate orriarekin eta haurraren osasun txartelaren kopiarekin batera eman beharko da

Udaleku Irekiak behar bezala antolatu eta aurrera eramateko, begiraleak behar ditu Txurumuskik. Interesa dutenek Curriculum-a eta aurkezpen gutuna bidali beharko dituzte apirilaren 11 baino lehen

INFORMAZIO-DINAMIZAZIO GUNE BANA JARRI ZUTEN AIAN ETA ORION

Beira besterik ez edukiontzi berdean

Urola Kostako Ezker Abertzaleak Udal Elkartearen zaborraren politika kritikatu zuen.

Urola Kostako Udal Elkarteak beiraren gaikako bilketaren aldeko kanpaina egin berri du, elkarte osatzen duten 5 herrietan –Aia, Getaria, Orío, Zumaia eta Zarautz–. Horretarako, informazio-dinamizazio gune bat jarri zuten herri bakoitzean, baliabide informatikoen eta jolasen bitartez, beirazko ontzien hondakin inguruko informazioa eman eta beira birziklatzeak dituen onurak azaltzeko.

Aian, apirilaren 15eko arratsaldean jarri zuten informazio gunea, plazan. Orion, berriz, apirilaren 17ko goizean izan ziren, herriko plazan baita ere. Bi herrietan, jendea jolasetan aritzen zen bitartean, elkarrizketa motza egin zieten hezitzaileek herritarrei, zituzten zalantza guztiak argitzeko.

Edukiontzi berdeetan beirazko ontzien hondakinak –beirazko botilak, poteak eta kankarroak– besterik ez direla sartu behar izan zen garbier zabaldu nahi zuten informazioa eta ez botatzeko han tapak, tapoiak, txapak, bonbillak, fluoreszenteak, ispi-luak, leihoetako kristalak, edalontziak, kopak, kristalezko platerak eta portzelanazko gauzak, horiek guztiak beira birziklatzeko prozesuan arazoak sortzen baitituzte.



Apirilaren 17an jarri zuten mahaia Orioko plazan.

KARKARA

Herritarrek jostatzen ari ziren bitartean, elkarrizketa motz bana egin zieten hezitzaileek

Parte hartu zuten guztiei arbel magnetiko bana eman zitzaizen, hozkailuan itsatsita jartzeko.

5. EDUKIONTZIA

Eskualdeko Ezker Abertzaleak Urola Kostako Udal Elkartearen zaborraren politika kritikatu zuen apirilaren 14an egindako prentsaurrekoan. Zarautzen eta Zumaian 5. edukiontziak izandako harrera %14koa bakarrik izan arren, eskualdeko gainerako herrietan –Aian, Getarian eta Orion– ere ezarri nahi izatea salatu zuten eta zaborraren arazori aurre egiteko modu bakarra atez ateko gaikako bilketa dela azpimarratu zuten.

LABUR

JENDARTEA Sahararrak

Uda garaian Saharako haur bat etxean hartu nahi dutenei izena emateko deialdia egin du Saharautz elkarteak. Uztailean eta abuztuan etorriko dira desertuko umeak Oriora, hartuko dituen familiarik bada. Saharautz elkartera (699 27 07 91) deitu besterik ez dute interesatuek.

Egunkaria libre

Euskaldunon Egunkariaren auzian Martxelo Ota-mendi, Xabier Oleaga, Txema Auzmendi, Iñaki Uria eta Joan Mari Torrealdaie errugabetzat jo zituen Espainiako Audientzia Nazionalak apirilaren 12an emandako epaiaren arabera. *Dignidad y Justicia* eta *Asociacion Victimas del Terrorismo* elkarten salaketa baztertu eta ETAKideak ez direla ebatzi zuen Auzitegiko Zigor Arloko Salak.

EZBEHARRA

Auto istripua

Lau hildako eta zauritu bat utzi zituen auto istripu izugarriak A-8 autopistan, apirilaren 17an. Autoan zihoazen X. Uranga, J. J. Urretabizkaia, M. Eizagirre eta J. Aizarnazabal Zipri izan ziren hildakoak. Zarautzarrak ziren laurak eta Orion ere lagunak ziren, lagunartea ere bazutelako gurean. Aizarnazabal Orion bizi zen.

Orioko Ogia

ORIOGI

OPL OKINDEGIA
Frantziar ondarru

Tfnua: 943 83 01 89

He apaitdegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentes

lbal Oriko: 10 behe oinarri
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.zalduea@pajd.com.es

GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK ERE EMANGO DITU UDALAK

Gobernuz Kanpoko Erakundeei diru laguntzak

Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen diru laguntzak eskatu eta jasotzeko baldintzak erregulatu ditu, beste behin, Orioko Udalak.

Garatze bidean dauden herrialdeetako biztanleen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko lanetan aritzen diren Gobernuz Kanpoko Erakundeei diru laguntzak emateko bidea ireki du Orioko Udalak, aurtengoan ere. Hala jaso du apirilaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak.

Laguntza horiek eskuratu nahi dituzten elkarteek diru irabazi asmorik gabekoak izan beharko dute, alde batetik eta, bestetik, Gipuzkoan ordezkaritza izan beharko dute eta deialdiaren helburuarekin bat egin.

Udalak, bere aldetik, hiru alderdi hartuko ditu kontuan diru-laguntza zein elkarteri eman erabakitzeko orduan: lehenengo, garapenerako kooperazio ekintzetan eskarmentua izatea; bigarren, solidaritatea eta baliabide pribatuak mugiarazteko gaitasuna izatea eta, azkenik, diruz lagundutako ekintzak mantentzeko gaitasuna izatea.

AURKEZPENA

Maiatzaren 15a baino lehen egin beharko da eskaera Orioko udaletxeko idazkaritzan



Diru irabazi asmorik gabeko elkarteei emango zaie diru-laguntza.

KARKARA

eta ondoren aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da: izaera egiaztatzen duen agiria, Nortasun Fiskaleko Kodearen fotokopia, urteko zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak ordainduta dauden egiaztargiriak, kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria, egin nahi diren ekintzak jasotzen dituen memoria edo egitasmoa eta gastuen aurrekontu zehatza; horrez gain elkarteak dituen bitarteko propioak zein diren adierazi beharko da.

GIZARTE GAIAK

Gizarte zerbitzuen alorrean, Orion eta eskualdean, lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateek edota erakundeentzako diru laguntzak ere erregulatu ditu Orioko Udalak.

Kasu horretan ere, maiatzaren 15erako utzi beharko dira eskariak udaletxean, zehaztasunen memoriarekin eta aurrekontuaren aurrekontuarekin batera.

Bi kasuetan, behin eskaera guztiak jasota, banan-

Maiatzaren 15erako aurkeztu beharko dira eskariak eta gainerako agiriak Orioko udaletxean

banan aztertuko ditu Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak eta uztailaren hasierarako eman go dute hartutako erabakia- ren berri.

LURDES
MARRATZEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel: 943 83 00 24


RAMIRO
argazkiak

•ezkontza erreportajeak
600 eurotik gora
•jaunartzeak
50 eurotik gora
943 83 10 48 / 610 697 668
www.fotoramiro.com

LOBETXU JATETXEA

Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07



Batearekin jotzen abilenak dira Eguzki-OBBko jokalaririk; Ligako datuek hori erakusten dute, behintzat.

ELENA ETXEBERRIA

APIRILAREN 25EAN JOKATUKO DUTE HURRENGO PARTIDA, VALENTZIAN

Martxa ona hartuta, aurrena da Eguzki-OBB

Ligako lehen postuan daude oriotarrak, Viladecans taldeak adina punturekin.

Indartsu hasi du Espainiako Sofbol Liga Eguzki-OBB talde oriotarrak Ohorezko kategorian. Jokatutako sei partidetatik bost irabazi dituzte eta sailkapenean aurrenak dira, Viladecans taldearekin batera. Talde kataluniarrak eta oriotarrek puntu berak badi-tuzte ere, korrikaldi gutxiago jaso dituzte kontra OBBkoek.

Datuen arabera, gainera, batearekin jotzen abilenak dira Orioko Bate Bizkorra-ko jokalaririk: gaur arte, 70 aldiz pasa dira *home*-etik eta Viladecansekoek baino 14 korrikaldi gehiago egin dituzte. Apirilaren 11n Dridma Rivasen aurka Madrilen jokatutako azkeneko partidari, esaterako, 26 bira eman zizkioten zelaiko koadroari.

Hurrengo norgehiagoka asteburu honetan, apirilaren 25ean, Valentzian jokatuko dute neskek, etxetik kanpo,

11:00etan eta Valentziako Antorcha CEU taldearekin neurtu beharko dituzte indarrak.

ALDAKETAK

Aurtengo denboraldia bukatzeko 5 jardunaldi geratzen zaizkio OBBri. Azken lau partidak, gainera, etxean, Mendibeltzen jokatuko ditu: maiatzaren 9an, Viladecansen aurka; Atletico San Sebastianen kontra, 16an; 30ean, Dridmaren kontra; eta ekainaren 13an, Antorcharen aurka.

LABUR

ARRAUNA

Batzarra

Apirilaren 23an, ostirala-ekin, ezohiko batzarra egingo du Orioko Arraunketa Elkarteak, 19:30ean. Orioko Herri Ikastolako eraikin berriko areto nagusian izango da.

Gida-batzorde berrien aurkezpena eta 2010eko aurrekontuak izango dira bileran mintzagai.

JUDO

Blanco European

Islandiako Eyjafjallajökull sumendiak botatako errautsen lainoak hegazkina hartzen uzten badio, Europako Txapelketa jokatzea da Vienan Oiana Blanco judoka, hilaren 25era arte. Londresko Olinpiar Jokoetarako prestatzeko balioko diote saioek.

KOMUNIKABIDEAK

Sasoian berriua

Sasoian aldizkaria bi hilabetean behin argitaratzeko erabakia hartzeaz gain –hilabetekaria zen orain arte– www.sasoian.info webgunea berriua eta osatu berri du Urola Kostako Udal Elkarteak. Aurrerantzean, albisteei erantzuteko aukera, foroak, inkestak, elkarrizketa digitalak, iragarkiak... jasoko ditu Sasoian 2.0 webguneak.

JUANJO POLO ETA AITOR MATXIAIN | PALA JOKALARIAK

“Zaharrak nagusi gara oraindik ere pala jokoan”

Orioko 1. Gomazko Pala Txapelketa irabazi berri dute Juanjo Polok eta Aitor Matxiainek. Oraindik txapela buruan zutela, izan ginen bikotearekin.

Aspaldidanik aritzen al zarete palan?

Juanjo Polo: Urteak daramatzat nik. 33 urte edo izango dira aurreneko aldiz palan jokatu nuela.

Aitor Matxiain: Ez, nik ez. Duela 4 bat urte edo hasi nintzen palarekin.

Pala-bikote noiztik zarete?

A.M.: Oiartzungo Pala txapelketan ezagutu genuen elkar. Izan ere, azken partidaren ondoren afaria egiten dute han eta orduan izan genuen, aurreneko aldiz, elkarren berri.

J.P.: Aitorrek Aian bizi zela esan zidan—errenteriarra da eta nik zera erantzun nion: pasaitarra naizela, baina bera bezala, Aiara ezkondu nintzela neu ere. Hor sortu zen gure arteko harremana.

A.M.: Aiako txapelketa jokatu genuen iaz. Finalera iritsi ginen, baina galdu egin genuen norgehiagoka.

Aurreneko txapela al duzue, hortaz, Oriokoa?

A.M.: Bai. Zorte pixka bat izan dugu, egia esan behar bada. 10 bikote aritu gara lehian eta ondo jokatzeko



Polo eta Matxiain txapela, garaikurra eta arkume erdi bana jasota.

KARKARA

duten bikote politak ere izan dira tartean.

9 tanto bakarrik egin zizkizueten finalean Jabier Lukasek eta Jose Inazio Atorrastigastik. Erraz?

A.M.: Finalean ez ziren batere ondo aritu, baina kate-

goriako aurkariak dira. Elkarren kontra jokatu genuen aurreko partidaren lehia gogorra izan genuen eta oso ondo aritu ziren. 25 tanto egin zizkiguten.

J.P.: Partida azkarra izan zen finala.

A.M.: Uste baino errazago

Zorte pixka bat izan dugu. 10 bikote aritu gara lehian eta ondo jokatzeko duten bikote politak ere izan dira tartean

egin genituen txapelketako irabazle izateko 30 tantoak. Hobe izaten da izerdi gutxi botatzea, kar!

Asko entrenatuta sasoian iritsiko zineten finalera.

J.P.: Ni bai, ni aritu naiz txapelketa hau prestatzen.

A.M.: Nik ez dut aparteko ezer egin, ez daukat horretarako denborarik ere-eta. Ibiliko banintz, asko hobetuko nukeela uste dut. Denbora dudanean, hasiko naiz, baina momentuz...

Helduak gazteei nagusitu zaizkie txapelketa honetan.

J.P.: Ea datorren urtean gazte gehiago animatzen den!

A.M.: Ba, bai. Zaharrak nagusi, oraindik ere.

Beste txapelketaren batean parte hartzeko gogoz al zaudete?

J.P.: Aian, agian! Ez, Aitor? Ekainean hasita, herriko festen inguruan antolatzen dituzte eta polita izaten da.

Gabon
TABERNA
plater, koktail, aperitiboak
Telefonoa: 943 83 06 09

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Goizeko
KAFETEGIA
943 83 28 55
Aita Leizundri 33 bidea - ORIO
Autobus parada ondoan

JABIER MANCHADO ETA FELIX GESTIDO | TXAPISTAK ETA ZAHARBERRITZAILEAK

“Azkue tailerra hartu dugu, gure kabuz hasteko”

Javierrek (Alza) eta Felixek (Astigarraga) Ubegunen dagoen txapisten tailerra hartu dute bien artean lehenengo negozioa aurrera eramateko. Lanaren gorabeherak izan ditugu hizpide, Felix bozeramailetzat hartuta.

Nolatan iritsi zarete hona?

Zorte oneko kontua izan da. Ni garai batean hementxe bertan lan egin ondoren, Renault-en nebilan, Azkue txapista bat behar zuela esan zidatenean, eta Jabier aipatu nion. Gero, Azkuek utzi zue-nean, erabaki genuen geuk hartuko genuela. Gogoia izan dugu beti gure kabuz hasteko, eta horretan gabiltza 2009ko otsailetik.

Txapista batek zer eskaintzen du gaur egun?

Aurrenekoa da zerbitzu azkarra ematea, jendeak ezin baitu autorik gabe bizi. Balorazioa egiten dugu, piezak eskatu, ahalik eta denbora gutxien errepidetik kentzeko autoa. Talka txiki edo ertainen ondoriokoak izaten dira lanak edo kalteak pinturan. Gaur, kalte handiak direnean, auto berria erosten da.

Eskulana gutxitu egin da?

Bai. Lehen txapa lodiaz egindako pieza asko aluminiozkoak edo plastikozkoak dira gaur eta, horren ondorioz, txapak xurgatzen ditu kolpeak, eta ez bidaiariak. Kontsumismo kontua ere bada. Pieza bat konpontzea baino ordezkatzea merkeagoa izateko antolatzen dituzte gauzak fabrikanteek. Lehen eskulan gehiago egiten zen, baina asko garestitu da.

Krisiak lagundu dizue?

Ondo goaz, baina ezin da



Gustura ari dira lanean Ubegun industrialdeko tailerrean.

KARKARA

Jendeak maizago erabakitzen du auto berria ez erostea eta duena zaintzea

jakin. Jendeak maizago erabakitzen du auto berria ez erostea eta daukana zaintzea. Orduan, muga da jabeak nahi duen kalitatea eta aurrekontua. Halere, askok berria erosi du eskaintzak izan direlako.

Lan gogorra da batzuetan?

Bai. Jendeak ez du jakiten zenbat lan egiten den tailer batean. Motorra ondo bada-

Behin, helikoptero baten pintura lana egin genuen Parisko feria baterako

bil, lan ona egin dela pentsatzen du, baina pintura edo lineak bistan gelditzen dira, eta perfekzio gehiago eskatzen du. Koloreekin, esaterako, ondo asmatzea lan zaila da.

Lan mota guztiak egiten dituzue gustura?

Bioi gehiago gustatzen zaigu pintatzea, baina emaitza onak lortzeko, besteak oinarritzekoak dira: lijatzea, pape-

rekin babestea... Autoa ondo prestatzeak arrakasta dakarkizu azkenean. Bulegoko lana ez dugu hain gustuko, baina kobratzea, bai! Horretarako arriskatu gara, ezta?

Zaharberritzea ere egiten duzue.

Bai, teknika berri bat ikasi dugu binilo, plastiko eta larrua errestauratzeko, eta ez bakarrik autoekin, edozein altzari, txupa, edo nahi duzun gauzeekin. Betetzen gaituen lana da, berria zegoen bezala gelditzen baita objektua. Harritzekoa. Espero dugu, etorkizunean, seguritateko enpresek *salpikaderoa* ordezkatu ordez, sistema honekin konpontzea eskatuko dutela.

Zuen esku balego auto bat aukeratzea tailerrean konpontzeko, zein aukeratuko zenukete?

Izan ditugu, dagoeneko. Behin, Ferrari bat pintatu genuen, eta ikusten zen zein berezia den, zer kalitatea duen. Mercedes 180 bat ere goitik behera konpondu dugu. Buruko min handiak eman zizkigun, baina emaitzak ikusgarriak ziren. Helikoptero baten pintura lana ere egin genuen ingeniari aeronautiko batzuentzat, Parisko feria baterako.

Jendeak autoa ondo zaintzen du?

Batzuk edozein marka txiki ikusita urduri jartzen dira, eta beste batzuek ez digute ekartzen erabat zatartuta egon arte. Baina, orokorrean, etxean gurasoekin bizi diren gazteek diru gehiago gastatzen dute autoan. Gure kasuan, Jabik ondo zaintzen du berea, Megane Sport batek merezi du eta, baina nik nireari ez diot kasu gehiegirik egiten.

APIRILAREN 24AN ETA 25EAN EGINGO DA AURTEN

Landare Azokaren 8. edizioa izango da Iturraranen

Pixkanaka sendotzen, lekua hartzen, ari da Iturrarango Landare Berezien Azoka Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian.

47 mintegi hartuko ditu aurtten apirilaren 24an eta 25ean egingo den Landare Berezien 8. Azokak; iaz baino haztegi bat gutxiago izango da. Azken urteotan bezala, 5 kontinenteetako landareak bilduko dituzte, erakutsi eta saltzeko.

Estreinako etorriko dira, esaterako, antzinako fruitu arbolekin Erresuma Batuko Arboreco; landare bizikorrek ekarriko dituzten Frantziako Ets. Lumen eta Pépinière Lepage; landare tropikal eta subtropikalak erakutsiko dituen Frantziako Ets. Mallet-Daubas; eta Galiziako Eusebio Lopez kameliekin.

Frantziako Bourdillon Iris, Fleurs et Senteurs, Lumen, Pépinière Daubas eta Les Senteurs de Quercy, Lezoko Jaizkibel eta Málaga Plantaromed, aldiz, ez dira aurtten azokan izango. Bestelakoren bat edo beste ere izango da: hala nola, lorezaintza, botanika eta abarri buruzko liburuak eskainiko dituen Hontza Donostiako liburu-denda. Gainera, jateko eta edateko postuak ere jarriko dituzte, eta baita haurrentzako jolasteko gune bat ere.

Lehenengo aldiko prezioa berbera izango du sarrerak, beste behin ere: 3 euro, eta 12



Astebururako prestaketekin jo eta ke ari dira Iturraranen.

KARKARA

Antzinako fruitu arbolekin mintegi bat etorriko da aurreneko aldiz: Erresuma Batuko Arboreco

urte edo gutxiagoko haurrek ez dute ordaindu beharko. Egun berean erosi beharko da sarrera, azokan bertan.

AUTOBUSEZ

Auto ilararik eta istilurik ez izateko, autoek ezingo dute Iturrarango Lorategiraino joan. Aiako herrigunean edo Oribarzar alboko zabalgunean utzi beharko du ibilgailua azokara bertaratu nahi duenak. Bi toki horietatik eta Zarauzko tren geltokiaren paretik aterako dira gora eta behera ibiliko diren autobusak. 15 minuturo pasako dira eta doan izango dira azokara doazen guztientzat, bai joateko eta bai bueltatzeko.

LABUR

JENDARTEA Aldalur hil da

Zialtzeta baserrian jaiotako Justina Aldalur hil zen apirilaren 9an, 88 urte zituela. 17 urterekin moja sartu zen Justina eta oso ezaguna zen Aian. Izan ere, bertsogintza maitea zuen oso eta erlijioari lotutako hainbat eta hainbat lan egin zituen. Besteak beste, Ama Birjiñaren bizitza 1.532 bertsotan jasozuen.

ZERGAK

Ura eta zaborra

Aurtengo lehen hiruhilabeteko urari eta zaborrari dagokion zerga ordaintzeko epea zabalik dago maiatzaren 3az geroztik. Ekainaren 15a izango da ordaintzeko azken eguna.

HERRI KROSA

Zarautz-Aia

Ekainaren 13an, hileko bigarren igandearekin, Zarautz-Aia herri krosa jokatu da, 11 kilometro eta 300 metroko luzera duena.

Izena emateko epea zabalik da dagoeneko. Horretarako herrikrossa.com atarira jo behar da eta 4 euro ordaindu. Bestela, krosaren egunean, Zarauzko San Frantsizko eta Kale Nagusiaren arteko irteeran ere eman daiteke izena, 11:30ak arte, baina 8 euro ordaindu beharko da orduan.

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 83 07 84

KOLON TXIKI
guztiz egina
jateko

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzako asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

Joana Murgiondo
Asaparta-argantzen

ASEGURUAK

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

AIAKO LEHIOA

Haurren mundu zoragarria

Haurren mundua. Umea. Tolesgabea. Kutsagabea. Zoriontsua. Xehea. Irribarretsua. Maitabera. Guzti hauek eta beste adjektibo asko erabili zitezkeen haurren adimena deskribatzeko. Beren imajinazioa eta izaera, azken finean. Begirada garbi eta irribarre jator horiek... Beren malakoak bezain egiazkoak.

Egunero saiatzen naiz zerbait ezberdina, berria eta praktikoa erakusten haurrei; beti ere, jokoaren bidez planteatuta. Baina, bukatu ondoren, eta hausnarketa egiten dudanean, konturatzen naiz berak direla, egitan, niri erakusten didatenak. Gauero daramat nirekin etxera ikasitako zerbait, beren artean edota nirekin nola erlazionatzen diren aztertu ondoren.

Eta zoragarria da. Espresatzen uztea eta berek konturatu gabe adi-adi begira egotea.

Badirudi sentsore bat daukatela, zehatz-mehatz adierazten diena egun jakin horretan nola sentitzen naizen. Zeren eta triste, nekatuta edo haserre banago, niregana hurbiltzen dira eta besterik gabe besarkatzen naute. Nik ezer esan gabe. Gure artean hitzak

soberan daudelako. Gure energia da hitz egiten duena.

Eta, orduan, amore ematen dut. Nire koraza kentzen dut eta besarka nazaten uzten diet.

Besarkada bukatu da. Lurreratzen naiz. Eta errealtatera itzuli, berritua. Sendatua. Ume baten besarkadak dena sendatzeko ahalmena duelako. Dena. Deskribatu ezin den zerbait da. Sentitu

egin behar da ulertuko bada zertaz ari garen hitz egiten.

Tarteka, mentalki bakarrik baldin bada ere, itzuli egin beharko genuke gure barruko ume horrengana. Arazorik ez zuen mundu horretara. Amatzok meriendatzeko zer jarri ote digun baino kezka handiagorik gabe...

Badirudi hurrek sentsore bat dutela, zehatz-mehatz adierazten diena egun jakin horretan nola sentitzen naizen

Ume baten besarkadak dena sendatzeko ahalmena duelako. Dena. Deskribatu ezin den zerbait da

CARLA ACUÑA
(PILATES IRAKASLEA)

TXOKOAK ETA JENDEA



Aiarrak nagusi plaieroetan

Apirilaren 11n jokatu ziren hondartzako futboleko finalak, Zarautzen. Horien artean, nesketako alebin kategorian, Aiako eskolako eta Orioko ikastolako jokalaria izan ziren aurrez aurre. Oriotarrak 2 eta 0 aurreratu ziren, baina azken unean aiarrak berdintzea lortu zuten. Luzapenean ez zen golik izan eta penaltietan erabaki zen irabazleak aiarrak zirela. Bi taldeek dominak elkarrekin jaso ondoren, kiroltasunez ageri dira argazkian. Zorionak guztiei!



Giro aparta kalean eta sorpresa podiumean

Bi urte pasa ondoren itzuli zen Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia gurera, 50. edizioan. Apirilaren 9an eta 10ean herriko kaleetatik barrena ibili ziren, pedalei eraginez, munduko txirrindulari onentsuenak. Eibartik zetozela, ziztu bizian Aritzaga kaletik sartu ziren lehenengo aldiz txirrindulariak Oriora. Bentatik barrena, Igeldora joan eta, atzera, hona etorri ziren. Oriotik pasa eta ondo ezagunak ditugun Aiako bi aldapa gogorrak –Arrutikoa eta Agerrekoa– igo zituzten gero. Orion bukatu zuten, azkenean, eta Joaquin Purito Rodriguez izan zen helmugan aurrena.

Larunbateko erlojupekoan Christopher Horner nagusitu zen, eta faborito zen Alejandro Valverde eta etapa eta liderraren maillota kendu zizkion. Beñat Intxaustik ere ustekabe ederra eman zuen eta podiumera igo zen aurreko biekin batera.

Giro aparta sortu zen, eguzkia lagun, eta hango eta hemengo kale bazterrak zaleez bete ziren. Laranja, gorria, urdina... Kolore horiek guztiek utzitako irudiak jaso ditugu zuentzat jarraian.

BALORAZIOA



FERNANDO ORTIZ DE GUINEA
ORIOARRAK ELKARTEKO KIDEA

Primerako Itzulia izan da aurtengoa; ikaragarri ondo joan dira prestaketa-lanak Oriotarrak elkarteari zegozkion etapak eta balorazio-nota aparta jasoko dugula uste dut; 10, ezinhobea, esango nuke nik. Itzulia jarraitu duten komunikabide guztien ahotan izan gara, bai aukeratutako ibilbidearengatik eta baita antolaketa txukunarengatik ere. Euskal Herriko txirrindularirik garrantzitsuenetariko bat izandako Txomin Perurenak, esaterako, azken bi etapetan egindako lana goraiatu egin zuen.

Egia aitortu behar bada, zerura begira, euriaren beldur egon ez izan beharrak ere asko lagundu du. Eguzkiak lanean aritzeko lasaitasuna eman digu eta, bestalde, zaletu gehiago-atzeriko lagun ugari ere etorri zaigu—erakarri dute gure kaleetara, aldapa gogorretara gehienbat. Urte asko daramatzat Euskal Herriko Itzulia jarraitzen, eta ez dut uste inoiz hainbeste jende ikusi dudarik azken bi etapetan.

Txirrindulariak ere oso gustura joan dira hemendik; zaleen babesa eskertzekoa dela esan didate eta maitatuak eta errespetatuak sentitu dira. Munduan dagoen txirrindulari-afiziorik onena da Gipuzkoakoa, lepoa jarriko nuke.

Dudarik gabe, bestelakoak izango ziren kontuak, laguntzen aritu diren 150 inguru boluntario izan ez baziren. Eskerrik beroenak eman nahi nizkieke horiei guztiei.





PROTAGONISTEN HITZAK

RYDER HESJEDAL – GARMIN TRANSITION

“Askorentzat sorpresa izango nintzen arren, momentu onean nago. Katalunian oso ondo aritu nintzen eta hemen Itzulia hasi aurretik top 10ean izatea edonork sinatuko luke”

DAMIANO CUNEGO – LAMPRE

“Biharko etapan –Eibartik Oriora– dena ematen saiatuko naiz duela bi urtekoa errepikatzen. Baina oso zaila dago, Txanka gainean hiruzpalau baldin bagara, orduan ziurrenik eskuratuko dudala garaipena”

JENS VOIGT – TEAM SAXO BANK

“Itzuli benetan gogorra da eta are gehiago nire adineko batentzat. Baina munduko afiziorik onenaren aurrean egoteak asko balio du, eta horregatik etortzen naiz Euskal Herrira urtero-urtero”

HAIMAR ZUBELDIA –TEAM RADIOSHACK

“Entrenatzen dudan lekuan lehiatzea beti da berezia, ibilbidea zehatz-mehatz ezagutzen dut. Bihurguneak soilik ez, errepideko zuloak guztiak ere ezagutzen ditut!”

EUSEBIO UNZUÉ –CAISSE D’EPARGNE

“Erlojupekoaren aurretik ezin daiteke esan Valverde itzulia eskuan duenik. Bera eta Horner dira hautagai nagusiak eta ez dago ezer erabakita. Horiez gain, ikusi beharko da Pinottik egin dezakeena, eta ziur Beñat Intxausti ere aurrean izango dela”



CHRIS HORNER–TEAM RADIOSHACK


“Energiak gordetzen saiatu naiz azken aldapara arte, baina kanposantua ikustean banekien itzulia nirea zela”

DAN MARTIN – GARMIN TRANSITION

“Hemen bezalako pasioarekin ez da inon bizi txirrindularitza. Lehen aldia da niretzat eta izugarria izan da. Italiarregatik esango dute, baina haiek pixka bat eroak dira, zuek ez”







ITZULIA GURE ARTEAN

1 925ean ezagutu genuen Orion lehen aldiz Euskal Herriko Itzulia, bertatik bertara. Bigarren edizioa zuen eta 3. etapan, gure ondotik pasatu ziren, Donostiatik Debara bidean. Orduz geroztik, sarri-sarri ikusi ditugu txirrindulariak, ziztu bizian pasatzen. 1984. urtean, ordea, geldialdia egin zuten gurean, estreinako, Orion bukatu zen apirilaren 6ko etapan.

Gerora, aurtengoaz aparte, beste lau aldiz izan da karrera gurekin: 1992an, 1996an, 1999an, 2008an.

23. itzulia, 1984

EGUNA: apirilak 6, 5. etapa.

ETAPA: Bera-Orio: 139,5 km, goizean. Orio-Zarautz: 6,6 km, erlojupeko proba, arratsaldean.

IRABAZLEAK: Nico Edmonds eta Sean Kelly.

ITZULIKO IRABAZLEA: Sean Kelly.

32. itzulia, 1992

EGUNA: apirilak 6-7, 1. eta 2. etapak.

ETAPA: Orio-Orio: 129 km.

Orio-Agurain: 183 km.

IRABAZLEAK: Harald Maier eta Toni Rominger.

ITZULIKO IRABAZLEA: Toni Rominger.

36. itzulia, 1996

EGUNA: apirilak 11, 5. etapa.

ETAPA: Lekunberri-Orio: 97 km, goizean.

Orio-Benta: 6,5 km, erlojupeko proba, arratsaldean.

IRABAZLEAK: Neil Stephens eta Francesco Casagrande.

ITZULIKO IRABAZLEA: Francesco Casagrande.

39. itzulia, 1999

EGUNA: apirilak 9, 5. etapa

ETAPA: Lekunberri-Orio: 118 km.

Santio Erreka-Aia: 8,7 km, erlojupeko proba, arratsaldean.

IRABAZLEAK: Michael Boogerd eta Laurent Jalabert.

ITZULIKO IRABAZLEA: Laurent Jalabert.

48. itzulia, 2008

EGUNA: apirilak 11-12, 5. eta 6. etapak.

ETAPA: Gasteiz-Orio, 162 km.

Orio-Aia-Orio: 20 km, erlojupeko proba.

IRABAZLEAK: Damiano Cunego eta Alberto Contador.

ITZULIKO IRABAZLEA: Alberto Contador.

MOILA BAZTERRETIK

Karkarako soziedadea



JOKIN SALSAMENDI

Moila bazterrean jaioa naiz. Hor udaletxearen aurrean. Aurrean plaza eta atzean karkara. Txorizo eta haragi artean. Paxitaneko parrillako bisiguen ke artean. Elizpeko kantu zaharren altzoan lo hartu izan dut.

Goxo-goxo maindire artean. Goxo-gogo haurtzaroan.

Denbora pasa da eta aurrean sartu gara anaia eta biok soziedadean; San Juan Elizpe elkarte gastronomikoan. Anaia presidente eta ni presidenteorde. Gizondu gara biok. Erretiratu direnen segida gara eta ohitura zaharrei segida ematera gatoz. Nahiz eta txinoek soziedadea erosteko eskaintza egin, ez dugu saltzeko. Ze azken finean... herria ez al da horrelako erakunde eta bildulekuen metaketa? Irabazteko asmorik gabea, adin eta maila sozial ezberdinen elkargune, sukaldaritza eta bizi eskola eta emigranteak integratzeko leku. Bai. Integrazio eremu aproposa da.

Azken urteotan atzeritar ugari etorri da Oriora bizitze-

ra. Beren herriakutzi eta hona, Kantauri itsasoko kostaldera. Bizitzeko leku ederra izanagatik, denek diote herri itxia dela gurea. Karrakelen moduan oskol gogorra barruko haragira heldu aurretik. Eta emigranteari kosta egiten zaiola herritartzea, oriotartzea. Laguntzen du arrau-naren erreferentziak, laguntzen du hori koloreak, baina zenbait asko kostatzen zaio. Zeren ez baita erraza errumaniar, ekuadortar, andoaindar edo zarauztarra oriotartzen. Eta emigrante horiek laguntza behar dute eta hor funtzio garrantzitsua betetzen dute elkarrekin. Pentsa ezazue, gurean zein ondo integratzen diren juntan bi getariar ditugula!

Kontuak kontu, urteak pasatzen dira eta denak orio-

Ez da erraza errumaniar, ekuadortar, andoaindar edo zarauztarra oriotartzea

Pentsa ezazue gurean zein ondo integratu diren juntan bi getariar ditugula!

tar bihurtzen dira. Eta hori ama zarauztarra zuen batek diozue, lanik handiena ematen dutenak bide horitik eramateko.



**OSTEOPATIA
KLINIKA
BIKAMIOTA**

IÑIGO LASA GALLEGO

Tel.: 943 57 14 72 - 657 79 32 25

**ez bizi minez
UTZI NIRE ESKU**

ADARRETATIK HELDUTA

Bertsoka eta koadrilan

Igande arratsalde dotorea Araian bertsoek eta koadrilla giro paregabeak lagunduta. Bi finalerdi jokatutuzte iada Arabako Koadrilla Arteko Lehenengo Bertso Txapelketan. Ez da bertsoa Araban Euskal Herriko beste probintzietan bezain indartsua, beharbada, baina eskualde banaketaz gain beste banaketa administratibo berezia badu herrialde honek: lagunartea. Abantaila hori aprobetxatuz, hasi dute koadrillek bertsoa erein eta bertsozaleak biltzeko lana; bi urtean behin egiten den txapelketarako jendea animatu eta bertso uzta txukuna lortzeko errezeta.

Auzolana du oinarri ekimenak. Koadrillan erosoago ibili ohi gara euskaldunok eta bertso eskoletako zein beste lagunartee osatutako taldeek ere hori erakusten dute. Herritarrak bertsoara animatzeko ondo pentsatutako saioa da. Denen artean egin beharreko lanak, bakoitzaren trebetasunaren arabera banatu eta epaileen aurrean defendatzen dituzte. Zortziko nagusian, zortziko txikian, hamarreko txikian, puntuka zein koplakantuan, koadrillaren animoa eta babesa bizkarraldetik jasoz aritzen dira. Hiru eta sei bertsolari tartean izan ditzakete taldeek eta eskarmen-tua gehiago edo gutxiago duten jende gazte zein zahar-gazteek osatzen dituzte.

Bat-bateko bertsolariez gain, bertso-paperetan ari-



ENEKO BALERDI
DANTZARIA

Bertsoa erein eta bertsozaleak biltzeko lana hasi dute Araban lagunartee

Bakarka aritzerako pausua pixkanaka eta lagunartearen eskutik ematea ahalbidetzen du koadrillen arteko txapelketa honek

tzen direnek ere badute lekua lehiaketa horretan. Saio hori burutzen dutenek oso giro ederra sortzen dute jantziak egokituz, musika instru-

mentuz eta bestelako trastez baliatuz. Aurrez prestatu eta entseatutako bertsoak badira ere, hauen interpretazioa konplexua da. Aukeratutako gaia zein bertsoaren edukiarengandik gehiago espero da, gainera.

Koadrillan eta aurrez entseatuta, alakuadrilan eta bat-bateko koplak laburrak abestuz, txapelketaren esperientzia bizitzeko aukera ematen duten txapelketa da, beraz, Arabakoa. Bakarka aritzerako pausua pixkanaka eta lagunartearen eskutik ematea ahalbidetzen du. Bertsoa jasotzeko bertsolaria behar eta bertsolaria izango bada, bertso eskolek ereiten duten hazia era honetako ekimenez indartu behar.

Bertso gose denarentzako patata pintxo interesgarri osatutako bertso txapelketa da azaltzen ari natzai-zuena; datorren urtean datorkigun plater nagusia izango den Arabako Bertsolari Txapelketara bitartean tripazorriek abesteari utzi diezaieten erremedio paregabea. Saioak burutzen diren herrietan giro aberatsa sortzen da ondo moldatzen dituzten bazkari, afari zein herrietako tabernak girotuz.

Hurrengo finalerdi Amurrión egingo da hilaren 25ean eta finala Gasteizen maiatzaren 8an. Koadrilan, koadrillen arteko festa honetara joatera animatzen zaituztet, patata-bertsoak eta bertso-patatak bazkaltzeak merezi du eta.

NIRE HONETAN

Abiada bizian

Autoak abiada bizian gidatzea gustatzen zaio askori eta ondo legoke hori, ondorioz bide-bazterrak gorpu gazte beteko ez balizkigute.

20 urte nituen, sanpedrotako gau batean, Antilla aldean, auto batek jota eta eskuineko hanka txirtxilatuta zidanean; denak emanda zetorren istripua eragin zuen autoa eta, orduan ere, zauritu eta kolpatuez gain, gorpu gazte bat geratu zen bide-ertzean. 17 urte zituen Anetxuk.

Geroztik, bestelako begiz ikusten ditut autoa jostailu gisa darabiltenak eta amorragarria egiten zait gizartean nagusitzen ari den joera, auto-lasterketak famatzekoa eta auto-gidariak eredutzat hartzekoa. Urrutira gabe, Aian badaramate hainbat urte auto-lasterketa bat egiten eta Orion ere rally-a antolatzekotan omen dira irailerako, hondartzatik Bentara. Ulertezina bazait ere, bi lasterketek dute udalen babesia.

Beste edozein afizio bezalakoa dela esango didate batzuek eta kalterik ez duela egiten, lasterketetan dena oso kontrolatuta dagoelako. Baina ez da egia; errepideetan egunero ikusten ditugu abiaduraren gorazarre horrek sortutako arrisku eta kalte latzak.

JABIER ZABALETA

LEIHOLAN

Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

Adreia Agote Anabitarte Agote, 3 48740 Zaitza	Orakotzok San Francisco, 1 48800 Zandak	Aita Lertxundi, 31 48610 Urua Tel: 943 89 49 26
--	---	---

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

KIKU ARRI

943 83 09 84 aita lertxundi, 36
ORIO

telako, badakizue jendeak erantzun ohi duela horrelako ekitaldietan. Ikusi besterik ez zegoen Illarramendiko aldapak eta Orioko kanposanturako bideak zuten itxura. Jarraitu luzaroan horrela, eta ea hemendik bi urtera –gehia go ez itxaron, mesedez!– aurtengo akatsak zuzenduta, hobeto ateratzen den.

JON AMENABAR

Pausoz pauso

Ondo jakina da Euskal Preso Politikoen Kolektiboa osatzen duten 736 kideak frantziar eta

espainiar gobernuek ezarritako estermiozko espetxe politika ankerrari aurre egin beharrean daudela. Euskal Preso Politikoen Kolektiboa errepresio estrategiaren lehen planoan kokatu dute bi estatuek, ondo baitakite konpondu gabeko gatazka politikoa-ren ispilu zuzena izateaz gain, herri honetan ezabatu ezinezko begirunea eta maitasuna diegula. Doakie hemendik gure besarkadarik sentikorrena bi estatuetako ziega ilunetan dauden preso guztiei.

Milaka eta milaka kilometrorra sakabanatuta eta isolatuta dituzte euskal presoak eta, azken urteetan, beren

aurkako urrats berriak ere ikusi ditugu. Euskal Presoak hil arterainoko espetxealdira kondenatzen dituzte.

Hori dena salatzeko, apirilaren 24an, Urola Kosta zeharkatuko duen 4. Pausoz Pauso ekimenean parte hartzeko deia egiten dizuegu Amnistiaren Aldeko Mugimendutik.

Prestatutako egitarauaren arabera, 10:00etan emango zaio hasiera martxari, Azkoitiko plazan. Jarraian Azpeitia eta Zestoatik igaroko da martxa. 14:30ean, herri bazkaria izango da Zumaiko Beheko plazan. Txartelak herri guztietan, ohiko lekuetan, egon-

go dira salgai. 16:30ean ekingo zaio berriz martxari. Getaria igaro ondoren Zarautzen bukatuko da, 19:30ak aldera plazan egingo dugun ekitaldiarekin. Ondoren, txotxa egongo da plazan. Gauean, giro paregabea jarriko duten Egurra eta Kitto, Fridays Crew, Mercenarios eta Ezereza taldeek kontzertua eskainiko dute Zarauzko gaztetxean. Beraz, animatu eta bertan ikusiko dugu elkar. Mila esker gerturatuko zareten guztioi.

Pausoz pauso, dagozkien eskubideen jabe, Euskal Presoak Euskal Herrira!

ORIOKO AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA



islada
esteticara zentratua

Sbella De Miguel - Saray Cendoya

Bakeroen kalea, 2 behean Oriko antzina
Tf: 943 133 836
e-maila: icladsurru@hotmail.com



Igo zaitez haize berrietara!

Galerna I

943890416-677149334
galerna1orio@hotmail.com

jaletxea
logelak
gazteategi

Elkano suzoa
943 13 16 06

bodegas ERRASTI, S. L.



Eskaerak beraztatzea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gallur, Señorío de Laungala
Gallur eta Ardanalegi,
Arabar Errioxako ardoak

Euzko Euzkari, 45 ORIO • 943 83 03 86 / 83 89 52 • E-posta: bodegaserrasti@euzkoerrioxa.net



A&E
The Academy of English

Azkue

Tf: 943 13 04 38

AHOLKULARITZA
Fisicala, laborala, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

ARKAITZ Taberna

Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 1
Tel: 943 83 16 57

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefona: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5



Txokolateneko kontuak

Ia 100 urte ditu goian dagoen argazkiak; 90 bat edo, bai. Txokolatenea tabernaren aurrean atera zuten argazkia lau lagun horiek. Sagardotegia zegoen lehen leku berean, eta Joxe Migel Seguroiak taberna jarri zuen, aurreneko aldiz, etxeko ezizena baliatuz hura izendatzeko. Gerora, urte asko pasata, kartela jarri zuten sarrerako atearen gainean zintzilik –Kaixo edaritegia–, baina,

Txokolatenea, berezko izena erabiltzen jarraitu genuen oriotarrok.

Urteak aurrera egin ahala, belaunaldiz belaunaldi pasa dute taberna txokolatetarrek, duela hiru urte, 2007an, behin-betiko ateak itxi zituen arte.

Ezkerretik eskuinera, hauexek dituzue goiko lagunak: Jose Manuel Arrillaga Aizpurua; Maria Seguroia, tabernako

nagusiaren iloba; Juana Luluaga, Lizartatik neskame aritzeko etorri zena –bi emakumeak tabernako zerbitzariak ziren– eta Fernando Larrañaga.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:
BIXENTE LARRAÑAGA XARPAS

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

900147410 / 943 83 19 45 / 410 81 23 25

ZARAUZ

Carmen eta Txomin ARRANGEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

azkue karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

KRITIKA



Detalle del miedo disko berria aurkeztu zuen Erentxunek Orion.

KARKARA

Eguraldia bezain ona Mikel Erentxunen kontzertua

Euskal Herriko Itzuliko txirindulariak erlojupeko saioan bezala, Mikel Erentxun eta bere musikariek ere erlojuaren kontra egin zituzten Bartzelonako eta Orioko eszenatokiaren arteko kilometroak apirilaren 10ean, bezperan Katalunian eskaini baitzuten kontzertua.

21:00etan puntuan hasi zen hemengo emanaldia eta, musikari guztiak luxuzkoak izan arren, Joseba Irazokiren lana azpimarratu nahiko nuke. Elektrikoaz gain, banjo eta steel gitarrak maisuki

jantzi zituen Mikel Erentxunen *Detalle del miedo* disko berriko abestiak.

Disko horrekin erreperitorioa aldatu nahi du Erentxunek, eta Orioko kontzertuak lan berria dastatzeko aukera ezin hobea eman zuen. Eguraldi eta soinu ezin hobea izan zuen aire zabalean antolatutako saioak eta horri ikuskizunaren argiztapen bikaina eta jarraitzaileen familia arteko giroa gehituz gero, popa gustuko duen edonorentzat gau borobila izan zela esan dezakegu. Doinuei dagokienez, gustu han-

diz landutako gitarra kristalino eta erritmo poperoak entzuteko parada izan genuen.

Disko berriko abestiak ibilbide osoko beste zenbait kanta ezagunekin tartekatu zituen eta, kontzertuaren gailurrean, Amaia Monterorekin batera grabatutako Itoiz talde handiaren *Lau Teilatu* interpretatu zuen, ikusle gehienak abesten jartzea lortu zituen, ordu eta erdi inguru iraun zuen kontzertu entretenigarrian.

UNAI AZKARATE

IKASLEAK IDAZLE



OIHANE LERTXUNDI |

DBHKO 4. MAILA

Herriaren aldaketak

Bistakoak dira gure herrian izan diren aldaketak azken urteotan, hondartzatik hasi eta Dikeko parkeraino. Argi dago gure Orio Donostia berri baten itxura hartzen ari dela, eta gero eta modernoago eta *fashionago* bihurtzen ari dela. Gure udalak, turistentzat erakargarria egiten ari dela pentsatzen duenean, gero eta hiritarragoa bihurtzen du Orio, eta betidanik hemen bizi izan garenontzat gero eta itsusiago.

Gure hondartzaren ingurua, berriz, etxebizitza garestiz bete dute eta gure kanpin zaharra, lehen hain handia zena, esparru txiki bat bihurtu, eta zer esan Munton egiten ari diren etxebizitzeez...

Aldaketa horiekin guzkiekin, lehen herri lasaia eta polita zen herria, miniatutzeko hiri bihurtu dute.

Automóviles ZARAUTZ
 CITROËN ZURRIZU ORIGINALA
 ZARAUTZ. TEL. 943 13 13 90

ARISTERRAZU
 jatebxea
 Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

Kinkladenda - Uma arropa
argine.
 www.lasnet.com/argine
 Tel. 943 13 48 89
 25eko DESKONTUA FAMILIA
 UGARREN TXARTELAREKIN

edukitegia
ANTILLA
 jatebxea
 Alameda Kalea, 2 - Tel. 943 83 29 00

OSPAKIZUNA



LH-5eko ikasleak txapeldun

Apirilaren 11n Zarauzko plaiarotako txapeldun izatea lortu zuten Orioko Herri Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. mailako mutilek, finala irabazita. Zarauzko Salbatore Mitxelenako Agurreak taldearekin neurtu behar izan zituzten indarrak oriotarrek. Hiru gol sartu zituzten –Aratz Arregik, Josu Saezek eta Aitor Indok– eta bi jaso. Gainera, Aratz Arregik jokalaria onenaren saria ere jaso zuen. Zorionak guztiei!

HANDIK ETA HEMENDIK

“

Ez dut inongo jangeletarako lan egiten eta plateren bat, errezeta berriren bat sortuz gero, nire gonbidatu berezientzat izaten da. Nire platerak dastatzeko leku egokia erabateko lasaitasuna eta bakea dagoen jatetxea litzateke. Hala ere, oraindik pasatuko da tarte luze bat une hori iristerako, izan ere, denbora behar dut nire txoko edo gune propioa izateko. Baina ez dut horretarako presarik. Lehenago maisu handien jakituria neureganatu behar dut.”

NAJAT KANACHE | Sukaldaria
Berria; 2010/04/02

ZORIONAK!



Itzuliko laguntzaileei

Jakina da Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko etapa bat antolatzeak lan asko ematen duela, nekeza dela, eta are gehiago 50. edizioaren azken proba eta erlojupekoa direnean. 150 bat lagun aritu dira lanean Aian eta Orion, ostiralean eta larunbatean, dena behar bezala ateratzeko; batez ere, errepideak zaintzen, lasterketa behar bezala igaro zedin. Eta, egia esan behar bada, txukun asko bete zuten egitekoa, ez baitzen inolako ezbeharrik izan.

Zorionak, beraz, laguntzaile eta antolatzaileei, horrelako ikuskizunaz gozatzeko aukera emateagatik.

IZARRA BIDEOA

ERREBELATU DIGITALA MOMENTUAN

- Egutegiak
- Zorion agurrak, etab

Duena ezazu zure jaunartzeko orolgarria, artz-motak eta hitzak aukeratu.

0,55 €/aleko

Berria

850 AL. Nafarroa **173 €**

8500 AL. Nafarroa **59,99 €**

Arantzazua 15. Orto **943 83 38 81**

AMILIBIA
ONTZIOLAGA, S. L.

Irudi partezko proiektu eta instalazioak

guztizko kateak eta arazo-ontziak

Olasoaga, ga. auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Euzko Gintari Kalea 13-15
ORIO
943 63 38 75

ORAIN DELA 25 URTE

HIESaren lehen kasuak azaldu ziren European

Apirilaren 19an 23 urteko Donostiako gazte bat hil zen Gipuzkoako hiriburuko Ospitalean, HIESak eragindako garun-lesio edo toxoplasmosis baten ondorioz.

Euskal Autonomia Erkidegoan modu horretan hil zen aurreneko herritarra izan zen. European ere ez zen horrelako kasurik ezagutzen, ordu-ra arte. Berria komunikabideetara zabaldu zuten Zubillaga eta Alegria sendagileen hitzetan, gaixotasunari aurre egiteko modurik ezagutzen ezenez, prebentziorako zenbait aholku besterik ezin zituzten eman: sexu kontutan tentuz ibiltzeko eta homosexualitateari eta drogei uko egiteko esan zuten, besteak beste.

Gaixotasunaren hiltzetasa %50 arte jaitsi bazen ere, zalantza jositako etorkizuna iragartzen zuten garai hartan HIESarentzat. Izan ere, oraindik ere gaixotasun berria zen Hartutako Inmuno Eskasaren Sindromearena eta Amerikako Estatu Batuetatik mundu osora zabaltzen hasi berria besterikez zen orduan.

KULTUR ASTEA

Orioko Herri Ikastolak kultur astea antolatu zuen apirilaren 29an hasita, 7 egunez. Lehen egunean, zuhaitz txertaketari buruzko hitzaldia eskaini zuen Iñaki Larrañagak. *Akelarre* filma ere eman zuten udaletxeko udalbatzar aretoan. Maiatzaren lehen eguna,

1985
APIRILA

Orioko ikastolak 7 eguneko kultur astea egin zuen apirilaren 29an hasita

Gaixotasun berria zen IHESA eta Amerikako Estatu Batuetatik mundu osora zabaltzen hasi besterik ez zen egin

Peio Ruiz Cabestany irabazi zuen Euskal Herriko 25. Txirrindulari Itzulia

berriaz, hurrei zuzendutako ekitaldiz bete zuten: txistulariak eta trikitilariak izan ziren 09:00etan; kirolak eta jolasak,

10:00etan eta Txotxongilo taldearen emanaldia, 16:00etan.

Hizkuntzari eta pedagogiari buruzko mahai inguruarekin segi zuen asteak eta M. Karmen Garmendiak, Itziar Zubizarretak eta Anjel Lertxundik hartu zuten parte.

Hurrengo bi egunetan elebitasuna, antropologia eta kultura izan ziren hizpide Joxe Martin Apalategirekin; Benito Lertxundik kontzertua eskaini zuen herriko frontoian; eta hurrek egindako eskulanean erakusketa eta Liburu eta Diskoen azoka antolatu ziren.

Ikastola Egunarekin bukatu zituzten ospakizunak: txistulariak, trikitilariak, antzinateko Akelarrearen antzezpena eta bertsolari eta abarrek lagundutako bazkari herrikoia izan ziren.

EUSKAL HERRIKO ITZULIA

Apirilaren 1arekin hasi zen duela 25 urte Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia, Beran. 130 txirrindulariz osatutako tropelean Recio, Kelly, Hinault, Lemond eta Criquelion ziren urte hartako edizioa irabazteko faborito. Hala ere, euskaldun batentzat, Peio Ruiz Cabestanyrentzat, izan zen Itzulia, azkenean. Huraxe izan zen donostiarrak irabazi zuen Euskal Herriko Itzuli bakarra.

Txapeldunarekin batera beste 21 euskaldun aritu ziren pedalei eragin eta eragin lasterketan.

JAIOTAKOAK

- Ez da jaiotzarik izan.

EZKONDUTAKOAK

- Aritz Lizaso Campos eta Nerea Zuloaga San Sebastian, Aian, apirilaren 10ean.

HILDAKOAK

- Mercedes Iribar Agote, Aian, apirilaren 17an. 81 urte.
- Jose Lukas Gañan, Orion, apirilaren 15ean. 84 urte.
- Luxiano Manterola Arregi, Donostian, apirilaren 13an. 62 urte.
- Manuel Manzisidor Agirresarobe, Orion, apirilaren 10ean. 61 urte.
- Jabier Ikazeta Mayo, Orion, apirilaren 9an. 67 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



 **ACTIVA**  Akobe

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abeilari, 6 - Tel/Fax: 943 63 12 49
20809 ORIO

ALTERRI Karta eraberritua

Azkenen, egurren eta ginetan, menu bereziak

943830762

SANTI BARRANCO | SEGUROS BILBAO TXIRRINDULARI TALDEKO KIROL-ZUZENDARIA

“Formazio taldea dugu eta konfiantza eskertzen da”

Txirrindulari talde amateur baten esperientzia ezagutu nahi izan dugu, profesional izan aurretik denak pasatzen baitira kategoria horretatik. Azken 7 urteetan Orion bizi den Santi Barrancorekin izan gara horretarako, Seguros Bilbao taldeko kirol-zuzendaria baita.

Nola eman zenuen txirrindulari izatetik kirol-zuzendari izatera heltzeko saltoa?

Euskaltel taldearen Olarra filiala desagertzeraokan sortu zen Seguros Bilbao, amateur kategorian. Amateurretan berekin aritu nintzen, nitaz oroitu ziren taldeko kide izateko; hasiera batean *mountain-bike* aritzeko. Urtebete egin nuen lehian eta, gero, taldeko zuzendari izatea eskaini zidaten. Baina horrek ere urtea bakarrik iraun zuen, Seguros Bilbaok errepedeko txirrindularitza bakarrik babestea erabaki baitzuen. Hasiera batean gauza bat edo beste egiten hasi nintzen, lasterketan laguntzen, masajista modura... baina orain dela bi urtetik hona taldeko kirol-zuzendari naiz, Usurbilgo lantegian eszedentzia eskatuta.

Talde amateur mantentzea profesionala mantentzea baino zailagoa al da?

Bai. Kontuan izan behar da oihartzun mediatiko gutxiago duela gure kategoriak, beraz, babesleak ere ez dira horren potoloak izaten. Guk zortea dugu Seguros Bilbaok konfiantza osoa baitu gure taldean eta, formazio talde bat izanik, eskertzekoa da hori.

Formazio taldea? Zer esan nahi duzu horrekin?

Amateurretik profesiona-



23 urtez azpiko txirrindulariek osatzen dute Santik gidatzen duen taldea. KARKARA

Profesional izateko tranpolin moduko taldea gara. Gurekin dauden txirrindulari guztiak 23 urte ez dituzte bete

lerako tranpolin moduko taldea gara. Gurekin dauden txirrindulari guztiak 23 urtez azpikoak dira.

Euskal Herritik kanpora ibiltzen al zarete?

Normalean Euskal Herrian bakarrik aritzen gara, baina

Guk bi auto ditugu, furgoi bat, kamioitxo bat... ezin gara kexatu; beste askok pare bat auto dituzte eta kitto

Espaniako kopa ere jokatzen dugu. Kopa horretan gure kategoriako 15 taldeak gonbidatuta gaude. 10 lasterketa dira eta batean parte hartzen duenak, derrigorrez, denetan aritu beharko du. Asteasun jokatzen da lasterketa horietako bat.

Itzuliagatik Aian eta Orion ikusi genituen azpiegiturak, errepedeak itxita... izaten dira zuenean?

Ez, ez du zerikusirik. Aste pare bat barru Bidasoako proban Oriotik pasako gara eta bertan ikusi dezakezue nolako den. Guk bi auto ditugu, furgoi bat, kamioitxo bat... ezin gara kexatu; beste askok pare bat auto dituzte eta kitto.

Txirrindularitza asko lotzen da dopingarekin. Amateurretan ere izatean dakasurik?

Bat edo beste ematen da, baina kontrol kopurua ere askoz murriztagoa da. Alde batetik, antolakuntzak edo federazioak beren gain hartu behar duten gastu bat da eta ez zaie interesatzen. Bestalde, guk, behintzat, talde bezala ez dugu horrelakorik onartzen. Guretzat txirrindularitza ez da bizikleta bat eta maillot bat eman eta pedalei eragiten hastea. Esan bezala formazio talde bat gara eta txirrindulariei probak egiten dizkiegu.

Emaitza onak dira aurten-goak?

Normalean lasai hasten gara eta geroago hobetzen dugu. Aurten, berriz, orain dela gutxi hasi dugu denboraldia eta dagoeneko lau lasterketa irabazi ditugu. Hala ere, orain hasten dira proba garrantzitsuenak.

Egia da Euskal Herria dela txirrindulari zaletu gehien dagoen ingurua?

Baietz esan liteke, hau dela txirrindularitza gehien praktikatu eta jarraitzen den herria. Jaenen, behintzat, ez da inor ikusten kaleetan. Hala ere, beti esan izan da Euskal Herria dela txirrindularitzaren sehaska, baina, nire iritziz, gaur egun ez da horrela.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20

Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ - DONOSTIA

Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39

Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:00
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30
11:40	12:15	12:25		10:30	11:00
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:00
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:00
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:00
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30
17:40	18:15	18:25		16:30	17:00
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30
19:40	20:15	20:25		19:30	20:00
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00

ASTEBURUETAN

Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
08:00	08:35	08:45	05:45	06:55	07:30
09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40

OHARRA: lanegunetan koazko argiotan ordutako autobusak Urteak pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gutxiak pasatzen dira. Koazko funtzioak ordutak lanegunetarako (laneguna) zerbitzuei bakarrak dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Lanegunetan darama. Zerbitzuan buruzko informazioa lortzeko zentzu bide daude:

www.lanegun.com Tf. 943 24 01 14 sms-a 5280 zerbitzua

ITSASOA

Apirila	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
23	12:33 eta	06:20 eta 18:56	
24	01:27 eta 14:08	08:04 eta 20:27	
25	02:33 eta 12:14	08:50 eta 21:28	
26	03:34 eta 16:04	09:46 eta 22:15	
27	04:21 eta 16:46	10:32 eta 22:56	
28	05:03 eta 17:24	11:12 eta 23:33	
29	05:41 eta 17:59	11:50 eta 24:08	
30	06:17 eta 18:33	12:25 eta	
01	06:52 eta 19:05	00:42 eta 13:00	
02	07:27 eta 19:37	01:15 eta 13:33	
03	08:01 eta 20:08	01:47 eta 14:06	
04	08:37 eta 20:39	02:20 eta 14:11	
05	09:18 eta 21:16	02:55 eta 14:51	
06	08:17 eta 22:44	04:10 eta 15:54	
07	12:42 eta	05:58 eta 16:14	

ZAINZAKO BOTIKAK

APIRILA / MAIATZA

- 23an, Larrañaga.
- 24an eta 25ean, Mutiozabal.
- 26an, Azaldegia.
- 27an, Zulaika.
- 28an, Iriarte.
- 29an, Larrañaga.
- 30ean, Mutiozabal.
- 1ean eta 2an, Zulaika.
- 3an, Azaldegia.
- 4an, Iriarte.
- 5ean, Larrañaga.
- 6an, Mutiozabal.
- 7an, Zulaika.
- 8an eta 9an, G. Artiñano.
- 10ean, Iriarte.

- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberrria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

PODOLOGIA

■ Aian, maiatzaren 8an.
Txanda hartzeko udaletxera
deitu behar da: 943 13 11 44.

SILO-BOLAK

■ Aian, maiatzaren 11n.
Zerbitzuaren inguruko
informazioa jasotzeko
Urkomera deitu: 643 81 65
00; edo bertako Igorrekin
hitz egin: 660 04 97 51.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, apirilaren 28an,
altzari zaharrak jasoko
dituzte. Bezperan utzi behar
dira edukiontzien ondoan.

ERROMERIA

■ Apirilaren 25ean,
Andatzako Erromeria
Elkarteak antolatuta,
erromeria J. L. Laja eta Unai
Narbaiza trikitilariekin.
18:30etik 21:30era,
Aristerrazun.

MENDIA

■ Apirilaren 25ean, irteera
Talai Mendi mendi
elkarteak antolatuta:
Elosuako Irukurutzetatik
Elgoibarko Karakatera.
07:30ean, autobus
geltokian.

BIDAIA

■ Apirilaren 23tik 25era,
Orioko Zaharren Babes
Lekuak antolatuta,
Kantabriara asteburu pasa.



Olio zaharra jasotzeko

Etxeko olio eta hondakin arriskutsuak –mugikorrek, tonerrak, pintura...–biltzeko, hileko lehen ostegunean eta hirugarren larunbatean, zerbitzu hori ematen duen furgoneta pasatzen da. Hurrengo aukera, maiatzaren 6an izango da: Orion, 09:00etatik 11:00etara Anibarko Portuan, eta 11:05etik 13:00etara ikastola aurreko plazan.

ELKARRETARATZEA

■ Orion, apirilaren 30ean,
euskal presoak Euskal
Herriratzearen aldeko
elkarretaratze isila. Herriko
plazan, 20:00etan.

BINGOA

■ Orion, asteazkenero,

bingo saioak, Zaharren
Babes Lekuak antolatuta.
Orioko kultur etxean,
16:30etik 18:30era.

HITZALDIA

■ Apirilaren 23an, *Zure
bizkarrezurra zainduz
osasuna lortu* hitzaldia.

Hizlaria: Juan Alonso
kiropraktikan doktorea.
19:00etatik 20:00etara,
Orioko kultur etxean.

BERTSIO GAUA

■ Maiatzaren 7an, OKK
Gazte Asanbladak
antolatuta, 2. Bertsio Gaua.
Txalupa Musika Antzokian.

FUTBOLA

■ Apirilaren 24an eta 25ean,
preferentean: Orio-Lagun
Onak. Jubenilen ohorezko
kategoria, Kopan eta
jaitsieran: Hondarribia-
Orio. Kadeteen 1. kategoria,
igoeran: Orio-Euskalduna.
Infantilak, ohorezko kopan:
Behobia-Orio.
Emakumezkoen kopa: Orio-
Touring.

■ Maiatzaren 1ean eta 2an,
preferentean: Antzuola-
Orio. Jubenilen ohorezko
kategoria, Kopan eta
jaitsieran: Orio-Beti Gazte.
Kadeteen 1. kategoria,
igoeran: Real Union B-Orio.
Infantilak, ohorezko kopan:
Orio-Beti Ona.
Emakumezkoen kopan:
Luberri-Orio.

ARETO FUTBOLA

■ Apirilaren 24an: Inter/
Euskal Sofa-Orioko
Tabernak.
■ Maiatzaren 2an: Orioko
Tabernak-Elorrioko
Buskantza.

AZOKA**LAN BILA**

■ Edadetuak zainduko
nituzke. Eskarmentua badut
eta erreferentziak ere bai.
Tf: 617 71 54 39.
■ Neska gazte eta
arduratsuak haurrak udan
zaintzeko: Tf: 664 14 89 92

SALGAI

■ Bigarren eskuko altzariak
salgai, egoera onean.
Tf: 610 81 80 79.
■ Etxea salgai Eusko
Gudarin. Handia eta goxoa
da eta ganbara ederra ere
badu. Tf: 639 20 27 64.

ETXE BILA

■ Orion alokatzeko pisu
bila dabil neska oriotarra.
676 44 13 27 (Ghariba).
■ Orion alokatzeko pisu
bila nabil, urte osorako. 676
28 25 88 edo 943 83 15 18
(lan orduetan).

OPARI

■ Txakurkume politik
ditugu oparitzeko. Hiru
hilabete pasatxo dituzte.
Deitu lasai 615 71 40 85
telefono zenbakira, baten
bat etxera eraman nahi
izanez gero.

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 29 41 25 - Fax 943 83 54 96 itsasadarra@itsasadarra.com

Iba. C/ndo 4, behea, 20810 Orto

HAIZE BERRI
ahaztu gabeko kafeetegi

Plazer kontinuantak,
bakatak,
hamburgerak,
razoak,
eguzko menua...

eta OTROA eramaneko zerbitzuak

Irudi luaduna: In. 643 1 99 43 31 In. 21 10000 gaurra In. 1000

ZAPATA KONPONKETAK

Lan egunetan 09:00 - 21:00 eta 24:00 - 24:00
Laruntzetan 09:00 - 15:00
Herriko enpresan, Orto

